



2021/2022 denboraldia

10. ZIRKULARRA

COVID-19AREN ONDORIOZKO LEHIAKETEN EZOHIKO ARAUDIA

Sarrera:

Pandemiaren ondorioz bizi dugun ezohiko egoera eta honen garapenaren ziurgabetasuna direla eta, zenbait kasu arautu eta erregelamendu-aldaketa batzuk egin behar dira lehiaketaren garapen egokirako.

Ezohiko araudi honek Gipuzkoako Futbol Federazioaren jurisdikziopean dauden lehiaketa guztiei eragingo lie, txapelketa bakoitzaren zirkularretan jasotako berezitasunei eragin gabe.

1. Babes orokorra

Zirkular honetan xedatutakoa denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik alda daiteke, eta Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da, Batzar Nagusiak 2021eko ekainaren 28an berariaz eskuordetuta, txapelketaren geldialdia edo/eta itzulera erabakitzea sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta, hala nola pandemiaren bilakaeraren arabera lehiaketa egokitzea, egutegia luzatzea edota txapelketekin zerikusia duen edozein erabaki.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako egiaztatutzat joko dira ezinbesteko arrazoiak, lurralde jakin batean gobernu-araudi edo lege-agindu bat baldin badago, eta justizia eskudunak bermatzen badu kirol jarduerak egitea eragozten duela, izan edozein mailako entrenamendu egitea, lurralde horretan partidak jokatzea edo muga horiei eragiten dien alarma-egoera dekretatzea.

2. Partidak bertan behera uztea eta berreskuratzea

Klub bakoitzaren Covid arduradunaren erantzukizuna izango da partida bertan behera uzteko eskaria idatziz egitea, horretarako arrazoiak argudiatuz.

Gipuzkoako Futbol Federazioaren Jarraipen Batzorde Betearazleak erabakiko du eskaria onartu edo ez.



Jokatu ezin diren partidak Lehiaketa Batzordeak ezarritako data baino lehen berreskuratu beharko dira, bertan behera utzitako partiden ordena errespetatuz. Ordena hori aldatu ahal izango da parte-hartzailearen batek COVID-19arekin lotutako arrazoiengatik partida jokatzetik izango ez balu.

Lehiaketaren egutegian jardunaldi ofizialak ez dauden datak kontuan hartzeko ahalegina egingo da, eta beharrezkoa balitz, data horien hurrengo asteazkena ere sartu ahalko litzateke.

3. Lehiaketaren azken emaitzak guztiek amaituta ez badute

Lehiaketa ezinbesteko arrazoiengatik eteten edo bertan behera gelditzen bada, honako arau hauek ezarriko dira lehiaketetako maila-igoerak, baldin badaude, eta irabazleak zehazteko:

a) Liga erregularraren formatun jokatzen den lehiaketarako.

Ligako egutegian ezarritako fase osoa ezinbesteko edozein arrazoiengatik ezin bada amaitu, kanporaketak jokatuko dituzten taldeen multzoak egiteko kontuan hartuko dira lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko zatidura, sailkapen orokorreko golen aldea eta gol gehien sartu dituenak. Kanporaketa jokatu ahal izateko, ordea, taldeek, multzoan partida gehien jokatu dituen taldearekin alderatuta, %70a baino gehiago jokatuta izan behar dute. Hautagai nahikorik ez badago, ehuneko hori jaisten joango da ondoen sailkatutako taldeak lortu arte.

b) Kanporaketa formatuan jokatzen den lehiaketarako.

Talde batek ezinbesteko edozein arrazoiengatik ezin badu finala jokatu, ezta partida berreskuratzeko aukeratutako egunean ere, garaipena aurkariari emango zaio. Bi taldeei modu berean eragiten dien ezinbesteko arrazoiaren batengatik finala jokatzetik ez badago, ezta partida berreskuratzeko aukeratutako egunean ere, liga erregularreko faseko bi finalistak sailkapena hartuko da kontuan kategoriako txapelduna edo igoera ordena, halakorik balego, zehazteko. Horretarako, kontuan hartuko da araudian ezarritakoa, hau da, jokatutako partidetan lortutako puntuak, sailkapen orokorreko golen aldea eta gol gehien sartu dituenak.

Kanporaketa fase bat gainditu dute eta hurrengora sailkatu dira:

- Jokatu ahal izan diren kanporaketako partiden irabazleak.
- Taldekideekin loturarik ez duen arrazoi batengatik kanporaketa jokatu ezin izan duten taldeak.



-Gainontzeko taldeei dagokienez, bi talde aurkariak berdin eragiten dien ezinbesteko arrazoiren batengatik kanporaketa ezin izan badute jokatu, liga fasean sailkapen hobia lortu duen taldea igaroko da hurrengo fasera. Horretarako, araudian ezarritakoa hartuko da kontuan, hau da, jokatutako partidetan lortutako puntuak, sailkapen orokorreko golen aldea eta gol gehien sartu dituen.

4. Taldean, teknikari-taldean eta gainerako kideetan positibo emateak dituen ondorioak

Talderen batean kirol lizentzia duen edozein pertsonak positibo ematen badu Covid-19an eta taldearekin harremana izan badu, entrenamenduak eta lehiaketan parte hartzea berehala bertan behera utzi behar dira, osasun agintariak egoeraren aurrean zer egin esan arte.

Konfinatuta dagoen taldeak hurrengo partida jokatu beharko du, konfinamendua asteko asteazkena (egun hori barne) baino lehen amaitzen badu, partida hori prestatzeko osteguna eta ostirala dituela ulertuta.

5. Covid-19 kasu positiboak jakinarazteko betebeharra

Klub bakoitzeko COVID arduradunak idatziz jakinarazi beharko dio Gipuzkoako Futbol Federazioari, isilpean eta sekretu profesionalaren printzipiopean, ahalik eta lasterren eta betiere horren berri izan eta 12 ordu igaro baino lehen, federatutako lizentzia duen kideren batek positibo eman edo konfinamendu orokorra badu, kaltetutako pertsonen kopurua eta osasun agintariak emandako epeak zehaztuta.

Kasu hauek ez jakinaraztea Diziplina Kodearen 39. artikuluan aurreikusitako arau-hauste larritzat hartuko da, kirol-ordena onaren aurkako jokabidetzat; izan ere, ekintza bereziki larritzat jotzen da, talde bereko eta aurkariaren taldekideekiko errespetu faltagatik eta txapelketako partaideak arriskuan jartzeagatik.

6. Taldeetako kideak instalazioetara sartzea

Segurtasun-protokoloak betez, Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuak agintaritzea eskudunek Bera eta Lesaka herrietarako indarrean duten araudiaren arabera sartuko da publikoa kirol-instalazioetara.

Kirol-instalazioetara sartzea debekatzea agintzen bada, federazio organoek aztertuko dute egoera hori, eta egoera horretara egokitzen diren arau eta gomendioen zirkularra egingo dute.



7. Aldagelen erabilera

Etxeko taldeak aldagela bat jarriko du nahitaez 3 epailentzat eta aldagela horrek Interneterako sarbidea izango du dagokion akta idazteko.

Etxeko taldeak aurkariaren eskura bi aldagela jartzea gomendatzen da, bisitariak talde txikietan erabil ditzaten, osasun agintariek ezarritako pertsona kopurua gainditu gabe.

Halaber, aldagelak erabili ondoren, aireztatzea eta desinfektatzea gomendatzen da.


8. Aulkien erabilera

Pertsonen arteko distantziari dagokionez, errespetatu beharreko neurri bereziak direla eta, baimena ematen zaie klubei harmailetako gunea edo eguraldi txarretik babestutako beste gune bat ahalbidetzeko, ordezeko jokalarientzat eta talde bateko edo bietako laguntzaile batzuentzat.

Eremu horiek, bertan egongo diren pertsonen arteko gomendatutako distantziak mantentzeko leku nahikoa izan beharko dute. Bestalde, bi taldeen guneak argi eta garbi mugatuta egon beharko dira, elkarren artean distantzia nahikoa egonda eta partidura joango diren gainontzeko pertsonen gunetik ondo berezita.

Donostia, 2021eko abuztua

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General